



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

679/2014 FORU AGINDUA, abenduaren 23koa, enpresariak, profesionalek eta beste zergapeko batzuek zerga ondorioetarako aurkeztu behar duten zentsu aitortenaren 036 eredia onartu, eta identifikazio fiskaleko zenbakiaren txartela ezartzen duena.

Irailaren 14ko 856/2012 Foru Aginduaren bidez onartuta geratu zen enpresariak, profesionalek eta beste zergapeko batzuek zerga ondorioetarako aurkeztu behar duten zentsu aitortenaren 036 eredia. Ondoren, foru agindu hori beste foru agindu honek aldatu zuen: azaroaren 27ko 1014/2013 Foru Agindua, enpresariak, profesionalek eta beste zergapeko batzuek zerga ondorioetarako aurkeztu behar duten zentsu aitortenaren 036 eredu berria onartzen duen irailaren 14ko 856/2012 Foru Aginduko 1. eranskina aldatzen duena.

Guztiarekin ere, 2014. urtean zehar era askotako aldaketak sartu dira araudian, 036 eredia aldatu beharra dakartenak, eta zeregin hori foru agindu berri bat onartuz egitea komeni da.

Bestalde, foru agindu honen bidez identifikazio fiskaleko zenbakiaren txartel berria onartzen da, haren diseinua Gipuzkoako Foru Aldundiaren korporazio-identitaterako eskuliburuarekin bat etor dadin, zeina maiatzaren 8ko 23/2012 Foru Dekretuaren bidez onartu baitzen.

036 eredia aldatzeko arrazoen artean, aipagarriak dira araudian sartu diren aldaketa hauek:

— Urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, bertan behar utzi du

zenbatespen objektiboaren metodoa eta, horrekin batera, zeinu, indize eta moduluen modalitatea. Hortaz, beharrezkoa da zentsu aitortpenetik ezabatzea zenbatespen metodo horri egindako aipamen guztiak.

— Balio erantsiaren gaineko zergaren esparruan, arautu da hainbanaketa bereziaren aldeko hautua zergaren autoliquidazioan egin behar dela, eta ez zentsu aitortpenean orain arte bezala. Horren ondorioz, alderdi hori ere zentsu aitortpenetik ezabatzen da.

— Subjektu pasiboaren inbertsioaren erregela aplikatzeko kasu berri bat sartu denez, ereduan enpresariak edo profesionalak identifikatu behar dira telefono mugikorren, bideo-jokoen kontsolen, ordenagailu eramangarrien eta tableta digitalen entregak jasotzen dituztenean, baldin eta ondasun horien birsailtzaile badira.

— Bidaia-agentzien araubide berezia egokitu egin da irailaren 26an Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak emandako Sententziara (C-189/11 gaia). Horrela, araubide berezi horren barruan desagertu egin da zerga oinarria modu globalean kalkulatzeko aukera.

— Beste aldaketa batek aurreikusten du inportazioak egiten dituzten enpresari edo profesionalak, halakotzat jarduten dutenean eta haien likidazio-aldia hilabete naturala denean, aduanek likidatutako kuota likidazio horren agiria jasotzen duten epealdiko autoliquidazioan sartu ahal izatea. Aukera hori zentsu aitortpenaren bidez adierazi behar denez, ezinbestekoa da eredua zentzu horretan aldatzea.

Esandakoa aintzat hartuta, eta aldaketa horiek guztiak sartzeko, 036 eredu berri bat onartzen da, aurretik aipatutakoa jasotzearen.

Honenbestez, betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 19. artikuluan ematen didan baimenaz eta foru dekretu horren amaierako bosgarren xedapenean jasotakoaz baliatuta, hau.

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Zentsu aitortpenaren 036 eredu berria onartzea.

Bat. Onarturik geratu da enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan alta, aldaketa edo bajaren zentsu aitortpenak aurkezteko erabiliko den 036 eredu berria, foru agindu honetan I. eranskin gisa ageri dena.

Bi ale ditu ereduak, Administrazioarena eta interesatuarena.

Bi. Zentsu aitortpenaren 036 ereduak eranskin hauek ditu aldi berean:

— I. eranskina: sozietateen gaineko zergari lotu gabeko entitateetako kide edo partaideen zerrenda.

— II. eranskina: lurralde espainiarrean egoiliarak ez diren subjektu pasiboak, eta BEZaren inguruko beste hainbat aukera eta egoera.

2. artikulua. Zentsu aitopena aurkeztera behartuak.

Bat. Betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak, 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onartuak (betebehar formalen Erregelamendua aurrerantzean), 5. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, enpresari, profesional eta atxikitzaileen eroldan sartzekoak diren pertsona edo entitateek erabili behar dute zentsu aitopenaren 036 eredia.

Betebehar formalen erregelamenduak 2. artikuluan aipatzen dituen pertsona edo entitateek aurkeztu behar diote Gipuzkoako Foru Aldundiari zentsu aitopenaren 036 eredia.

Bi. Zentsu aitopenaren 036 eredia aurkeztu beharko dute errentak esleitzen dituzten entitateetako bazkide, oinordeko, komunero edo partaide direnek ere, jarduera enpresarial edo profesionalak egiten dituztenean, betiere entitate horietako kide izateagatik zerga obligazioak bete behar badituzte.

Era berean, errentak esleitzen dituzten entitateetako kideek ere aitopen eredu hau erabili behar dute, entitate horiek nortasun juridikoa eduki edo ez, beren zerga helbidea Gipuzkoan kokatuta dagoenean eta beren jarduera helbide fiskala lurralde horretatik kanpo duen entitate baten bidez egiten dutenean.

Hiru. Betebehar formalen erregelamenduak 5. artikuluen 1. apartatuko a) letraren bigarren paragrafoan aipatzen dituen pertsona edo entitateek ez dute zertan aurkeztu zentsu aitopenaren 036 eredia.

Lau. Aurreko lehen eta bigarren apartatuetan aipatutako pertsona edo entitateek Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko zergapekoen eroldan sartzeko erabiliko dute zentsu aitopenaren 036 eredia, eta eredu horren bitartez egingo dute errola horretan alta hartzeko aitopena.

Alta aitopen horren bitartez eroldan sartuko dira betebehar formalen erregelamenduak 10etik 15era bitarteko artikuluetan aipatzen diren datuak.

Bost. Baldin eta alta aitopenean edo horren ondorengo aldaketa aitopen batean adierazitako datuek aldaketaren bat badute, zergapekoak aldaketa

horren berri eman beharko dio Zerga Administrazioari behar den aldaketa aitorpena dela medio, 036 ereduak aurkeztuta.

Zehazki, betebehar formalen erregelamenduak 16. artikularen 2. apartatuan jasotako kasuetan aurkeztuko da aldaketa aitorpena.

Eratze prozesuan izateagatik behin-behineko identifikazio fiskaleko zenbakia jaso duen pertsona edo entitateak beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu badu behin betiko identifikazio fiskaleko zenbakia jasotzeko, aldaketaren zentsu aitorpenaren bitartez eskatu beharko du behin-betiko zenbaki hori.

Sei. Zeinahi jarduera enpresarial edo profesional egiteari utzi edo, artikulua honetako lehen eta bigarren apartatuetakoa letretan jasota ez egoteagatik, erroldan sartuta egon behar ez dutenek 036 ereduaren bitartez aurkeztu behar dute zergapekoen erroldan baja emateko aitorpena.

3. artikulua. Batasunaren barruko operadoreen erregistroa.

036 ereduak erabilgarria izango da, baita ere, Batasunaren barruko operadoreen erregistroan alta edo baja eskatzeko, betebehar formalen erregelamenduak 6. artikuluan xedatutakoaren arabera.

4. artikulua. Balio erantsiaren gaineko zergaren hileko itzulketen erregistroa.

036 ereduak balio izango du, era berean, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 1. artikuluan araututako itzulketa prozedura aplikatu dezaketen enpresari edo profesionalek hileko itzulketen erregistroan izen ematea eskatzeko eta, hala badagokio, baja hartzeko. Erregistro hori ere zergapekoen erroldaren parte da.

5. artikulua. Zentsu aitorpenaren berezitasunak errentak esleitzen dituzten entitateei dagokienez.

Bat. Alta aitorpenak: kide edo partaideen zerrenda.

Baldin eta errentak esleitzeko erregimena aplikagarria duten entitateek jarduera enpresarial edo profesionalak egiten badituzte, zentsu aitorpena aurkeztuko dute entitate horri alta emateko. Zein osaketa duten adieraziko da aitorpen horretan, eta horretarako 036 ereduaren I. eranskinean ageri den kide edo partaideen zerrenda beteko dute.

Osaketa horretan aldaketaren bat gertatzen denean, haren berri eman beharko dute aldaketa aitorpen bat aurkeztuz. Era berean, bazkide, oinordeko,

komunero edo partaideek zentsu aitoren bana aurkeztu beharko dute entitate horietako kide izateak dakartzan zerga betebeharrak jakinarazteko.

Bi. Modalitateak aukeratzea, uko egitea eta errebokatzea, balio erantsiaren gaineko zergari eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokienez.

1. Errentak esleitzeko araubidean dagoen entitate batek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua hautatu nahi badu, kide edo partaide guztiek egin behar dute hautua. Hautua adierazteko, entitateak zentsu aitorenaren eredu bat aurkeztu behar du, eta kide edo partaideen zerrendan agertarazi haietako bakoitzaren hautua eta sinadura.

Aurreko paragrafoan aipatutako aukeran atzera egiten bada, entitateak aldaketa aitoren bat aurkeztuz eman beharko du horren berri, eta kide edo partaideen zerrendan ere horietako bakoitzaren atzera egin izana eta sinadura jasoko dira.

2. Errentak esleitzeko araubidean dagoen entitate batek uko egin nahi badio balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi erraztuari edo nekazaritza, abeltzaintza edo arrantzaren araubide bereziari, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan aukera egiteko adierazi den modu berean jokatu da.

Aurreko paragrafoan aipatutako ukoan atzera eginez gero, entitateak aldaketa aitoren bat aurkeztuz eman beharko du horren berri. Halere, kasu honetan ez da beharrezkoa izango kide edo partaideen zerrendan guztien sinadura agertzea, aitorena horietako edozeinek sinatzea nahikoa izango baita.

6. artikulua. Pertsona juridikoek eta nortasun juridikorik gabeko entitateek identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) eskatzea.

Bat. Betebehar formalen erregelamenduko 30. artikuluan aipatzen diren sozietate edo entitateek Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari identifikazio fiskaleko zenbakia eskatzeko erabiliko dute foru agindu honen bidez onartzen den zentsu aitorenaren 036 eredu.

Aurreko paragrafoan aipatu diren sozietate eta entitateen forma juridikoa aldatzen bada, sozietate eta entitate horiek Ogasun eta Finantza Departamentuari beste identifikazio fiskaleko zenbaki bat eskatzeko ere erabiliko dute foru agindu honetan onartutako 036 eredu.

Bi. Identifikazio fiskaleko zenbakia eskatzeak identifikazio txartela eskatzea ekarriko du berekin, eta hori Ogasun eta Finantza Departamentuak emango du foru agindu honetako II. eranskinean ageri den ereduari jarraituta.

Aurreko bat apartatuan aipatu diren sozietate eta entitateek identifikazio fiskaleko zenbakiaren beste txartel bat eskatu beharko dute hura galtzen dutenean edo bertan adierazitako datuak aldatzeagatik jada zuzena ez denean. Txartel berria eskatzeko, foru agindu honen bidez onartzen den 036 eredua erabiliko da, era berean.

7. artikulua. 036 eredua aurkezteko epeak.

Bat. Hona hemen alta, aldaketa eta bajaren zentsu aitortpena, 036 eredua, aurkezteko epeak:

a) Alta aitortpena.

Aitortpen hau aurkeztu behar da jarduerak hasi baino lehen, eragiketak hasi aurretik, ordaindu, abonatu edo zor diren errenten gainean atxikitzeko edo kontura sartzeko obligazioa sortu baino lehen, edo betebehar formalen erregelamenduko 15. artikuluan aurreikusitako zirkunstantziak gertatu aurretik.

Betebehar formalen erregelamenduan xedatutakoaren ondorioetarako, ulertzen da jarduera enpresarial edo profesional bat hasten dela ondasun edo zerbitzuen edozein entrega, prestazio edo eskurapen egiten denean, kobrantzak edo ordainketak egiten direnean, edo pertsonal laborala kontratatzen denean, betiere ondasun eta zerbitzuen produkzio edo banaketan esku hartzeko.

Dena den, altaren zentsu aitortpena aurkeztu behar da haren bitartez adierazten diren aukera edo komunikazioei buruzko xedapenetan jasotako epeetan.

b) Aldaketa aitortpena.

Hilabeteko epean aurkeztuko da izaera orokorrean, aldaketa ekarri duten gertaerak izan eta ondorengo egunetik aurrera, ondorengo letretan xedatutakoa eragotzi gabe.

a') Betebehar formalen erregelamenduak 16. artikularen 2. apartatuko i) letraren 2. zenbakian aipatzen duen jarduera desberdindu berriaren hasierako aitorpenak balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako aurreko jardueretik sektore desberdindua eratuko duen jarduera enpresarial berria hasi aurretik aurkeztu behar dira.

b') Betebehar formalen erregelamenduaren 16. artikularen 2. apartatuko e) letraren lehen paragrafoan aipatzen den eskaera, Batasunaren barruko operadoreen erregistroan sartzekoa, erregelamendu horretako 6. artikuluan aurreikusitako zirkunstantziak gertatu baino lehen aurkeztuko da.

c') Lehenago aipatutako 16. artikularen 2 apartatuko l) letran jasotako komunikazioa, BEZaren likidazio aldia aldatzekoa, epe orokorraren barruan egingo da, eta betiere zerga Administrazioari jakinarazitako aldaketa izan duen edo aldaketarik izan ez balitz aurkeztu beharko zen aldizkako lehen aitorpena aurkezteko epea amaitu baino lehen.

d') abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legera egokitzeak, 68. artikularen laugarren apartatuan aipatutako urrutiko salmenten eragiketengatik helburuko lurraldean tributatzea aukeratu nahi dutenek, ondorioa izan behar duen urte naturala hasi aurreko abenduan egingo dute aukera.

Jarduera hasten den urtean, eragiketa horiek egiten hasi aurretik egin beharko da aukera.

Aukerak bi urte naturaleko indarraldia izango du gutxienez. Behin bi urte naturalak igarota, subjektu pasiboak berritu beharko du egindako aukera. Hori egin ezean, atzera egiten duela ulertuko da zuzenean.

e') Aldizkako betebeharren aldaketa aitorpena aurkezteko epea Zerga Administrazioari jakinarazitako aldaketa izan duen edo aldaketarik gertatu ezean aurkeztu beharko zen aldizkako lehen aitorpena aurkezteko epea amaitzen denean bukatuko da.

f') Hileko itzulketen erregistroan alta edo baja emateko eskaera, ondorioak izan behar dituen urte naturala hasi aurreko azaroan aurkeztuko da.

Dena den, aurreko paragrafoan ezarritako epean erregistroan inskribatzeko eskatu ez duten subjektu pasiboek eta, orobat, jarduera enpresarial edo

profesionalekin lotutako ondasun salmentarik edo zerbitzu prestaziorik oraindik egiten hasi gabe egon arren, jarduera horietan erabiliko diren ondasun eta zerbitzuak eskuratu dituzten enpresari edo profesionalek, aldizkako autolikidazioak aurkezteko epearen barruan eskatu ahal izango dute erregistroan inskribatuak izateko. Bi kasuotan, autolikidazio horien likidazio aldia amaitu ondorengo egunetik aurrera izango du ondorioa erregistroko inskripzioak.

g') Abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzekoak, 14.bat artikuluan aipatutako pertsona edo entitateek egindako batasun barruko ondasun eskurapenak balio erantsiaren gaineko zergari atxikita geratzeko aitorpena edozein unetan aurkez daiteke.

c) Baja aitorpena.

Hilabeteko epea izango da bajaren zentsu aitorpena aurkezteko, betebeharrak formalen erregelamenduak 17. artikuluan jasotako baldintzak betetzen diren aurrera. Sozietate edo entitate bat desagitzen bada, baja aitorpena hilabeteko epean aurkeztuko da, dagozkion idazpenak, baleude, Merkataritza Erregistroan deuseztatzen diren aurrera.

Bi. Jarduera enpresarialak edo profesionalak egingo dituzten pertsona juridikoak edo nortasun juridikorik gabeko entitateak direnean, jarduera garatzeko beharrezkoak diren ondasun edo zerbitzuen edozein entrega, prestazio edo eskurapen egin aurretik, kobrantzak jaso edo ordainketak abonatu aurretik edo langileak kontratatu baino lehen eskatu beharko dute, 036 ereduaren bidez, identifikazio fiskaleko zenbakia.

Eratu edo lurralde espainiarrean ezarri ondorengo hilabetearen barruan aurkeztu beharko dute aipatu pertsona juridikoek edo entitateek identifikazio fiskaleko zenbakia lortzeko eskaera.

Dena den, eratze prozesuan baldin badaude, sozietate edo entitate horiek behin-behineko identifikazio fiskaleko zenbakia eskatu ahal izango dute. Zenbaki hori behin-behinekoa izango da ondoko agiriok aurkezten ez dituzten artean: eratze eskrituraren edo agiri fede-emailaaren kopia, sozietatearen estatutuena eta, behar denean, edozein erregistro publikotan inskribatu izanaren ziurtagiria.

Forma juridikoa aldatzen den kasuetan, identifikazio fiskaleko zenbaki berria eskatzeko epea aldaketaren zentsu aitortzea aurkezteko dagoen berbera izango da.

Ogasun eta Finantza Departamentuak gehienez 10 eguneko epean emango du identifikazio fiskaleko zenbakia, eta, horretarako, hari dagokion identifikazio txartela luzatuko du.

Identifikazio fiskaleko zenbakiaren txartel berria eskatzeko epea 30 eguneko izango da hura galtzen denetik edo zuzena ez izatea eragin duten aldaketak gertatzen diren egunetik aurrera.

8. artikulua. 036 eredua aurkezteko moduak eta tokiak, eta identitatea frogatzeko era.

Bat. Honako moduak erabili daitezke 036 eredua aurkezteko:

a) Paperezko euskarria. Bi modutan eskuratu ahal izango da euskarri hori: estankoetan erosita, edo bestela, erabiltzaileek Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa (<https://www.gfaegoitza.eus>) edo Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgune ofizialean (<https://www.gfaegoitza.eus>) eskura izango duten PDF artxiboa inprimatuta.

Euskarri hori erabilia betetzen diren aitortpenak Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen eta Ingurumen Tributuen Zerbitzuan edo herritarren arretarako bulegoetan aurkeztu behar dira.

b) Transmisio elektronikoa, Ogasun eta Finantza Departamentuaren web orrian (www.ogasuna.eus) eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa (<https://www.gfaegoitza.eus>) erabiltzaileek eskura dezaketen formularioa erabilia.

Transmisio elektronikoa Internet bidez egingo da, azaroaren 24ko 1011/2010 Foru Aginduak, zerga arloko zenbait tramite bide elektronikoz egiteko obligazioa arautzen duenak, ezarritako prozeduraren arabera.

Bi. Gorago aipatutako 1011/2010 Foru Aginduaren 1.1 artikuluan sartzen diren zergapekoek bide elektronikoz bakarrik aurkeztu behar dute eredu informatiboa.

Aurreko paragrafoan jasotakoa jasota ere, jarraian aipatzen diren zentsu aitorten paperezko euskarrian aurkeztuko dira beti:

- a) Identifikazio fiskaleko zenbaki bat eskatzen duten entitateen aitortenak.
- b) Beren identifikazio fiskaleko zenbakia aldatzea eskatzen duten zergapekoen aitortenak.
- c) Beren zerga edo sozietate helbidea aldatzen duten entitateen aitortenak.
- d) Ondasun erkidegoen eta onartu gabeko herentzien aitortenak, jabetza horizontaleko araubidean dauden jabe erkidegoenak, eta sozietate zibilenak, nortasun juridikoa izan edo ez.
- e) Jarduera utzi izanaren aitortenak, sozietatea desegin edo likidatzeagatik izan, zein helbidea aldatzeagatik izan.
- f) Identifikazio fiskaleko zenbakia baliogabetu zaien zergapekoen aitortenak.
- g) abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onartutako Gipuzkoako Zerga-bilketa Erregelamenduaren 62. artikuluan edo Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 120. artikuluan xedatutakoarengatik behin-behineko baja egoeran dauden zergapekoen aitortenak.

Hiru. 1011/2010 Foru Aginduaren 1.1 artikuluko a) eta b) letretan aipatzen diren zergapekoak behartuta daude euren identitatea frogatzera dela sinadura elektronikoko balioztatuaren bitartez, dela irailaren 12ko 40/2006 Foru Dekretuak, Zerga Administrazioaren aurrean egitekoak diren jarduketetan identitatea eta ordezkaritza nola frogatu arautzekoak, 3. artikuluan xedatutakoari jarraikiz emandako pasahitz operatiboa erabiliz.

1011/2010 Foru Aginduaren 1.1 artikuluko c) letran aipatzen diren pertsonak edo entitateek sinadura elektronikoko balioztatua erabiliz frogatu behar dute euren identitatea.

Zergapekoak ez badaude behartuta zerga arloko tramite jakin batzuk bide elektronikoz egitera 1011/2010 Foru Aginduko 1. artikuluan ezarritako obligazioak eragiten ez dielako, eta, aurreko 2. apartatuan jasotako kasuetan sartuta ez daudenean, aitortena Internet bidez aurkeztea aukeratzen badute, sinadura elektronikoko balioztatua edo pasahitz operatiboa erabilita frogatu ahal izango dute euren nortasuna.

9. artikulua. *Identifikazio fiskaleko zenbakiaren eskaerari erantsi beharreko dokumentazioa.*

Bat. Identifikazio fiskaleko zenbakia eratze prozesuan dauden sozietate edo entitateek eskatzen badute, 036 ereduarekin batera honako agiriok aurkeztuko dira:

— Eratzeko eragiketak egiten ari direla frogatzen duen dokumentazioa.

— Merkataritza Erregistroan inskribatu aurretik aukeratutako izenari buruzko ziurtagiri negatiboa, Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduak 413. artikuluan xedatutakoaren arabera.

— Eskaera izenpetzen duenaren IFZren fotokopia. Sozietatearen edo entitatearen ordezkari bat izan behar du.

Bi. Identifikazio fiskaleko zenbakia eratuta dauden sozietate edo entitateek eskatzen badute, honako agiriok aurkeztuko dira 036 ereduarekin batera:

1. Izaera orokorrean, eta hurrengo 2. apartatuan aurreikusitakoa eragotzi gabe, ondoko hauek:

— Eraketa eskrituraren edo agiri fede-emailaren kopia baimendua eta fotokopia, baita sozietatearen estatutuena ere.

— Behar denean, edozein erregistro publikotan inskribatu izanaren frogagiria.

— Eskaera izenpetzen duenaren IFZren fotokopia. Sozietatearen edo entitatearen ordezkari bat izan behar du.

— Eskaera izenpetzen duen pertsona sozietatearen ordezkari dela frogatzen duen dokumentuaren fotokopia. Hau aurkeztea ez da beharrezkoa izango eraketa eskrituran izaera horrekin ageri bada.

2. Bereziki, jarraian adierazten diren sozietate edo entitateek honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

a) Ondasun komunitateak eta sozietate zibilak.

— Eraketa kontratu pribatuaren jatorrizko dokumentua edo, horren ezean, kopia baimendua edo eskritura publikoaren fotokopia, komunero edo bazkide guztiek sinatua. Bertan bazkide edo komunero guztien identifikazio datuak jaso behar dira, partaidetza kuotak, komunitatearen edo sozietatearen xedea eta, azkenik, komunitatearen edo sozietatearen helbidea.

— Komunero edo bazkide bakoitzaren IFZren fotokopia.

b) Sozietate anonimoak, erantzukizun mugatukoak, kolektiboak eta komanditarioak.

— Eraketa eskrituraren kopia baimendua edo fotokopia. Sozietatearen funtzionamendua gidatzen duten estatutuak jaso behar ditu eskriturak.

— Sozietatearen eraketa Merkataritza Erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiria.

— Eskaera izenpetzen duenaren IFZren fotokopia. Sozietatearen ordezkari bat izan behar du.

— Eskaera izenpetzen duen pertsona sozietatearen ordezkari dela frogatzen duen dokumentuaren fotokopia. Hau aurkeztea ez da beharrezkoa izango eraketa eskrituran izaera horrekin ageri bada.

c) Sozietate kooperatiboak.

— Eraketa eskrituraren kopia baimendua edo fotokopia. Sozietatearen funtzionamendua gidatzen duten estatutuak jaso behar ditu eskriturak.

— Sozietatea dagokion Kooperatiben Erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiria.

— Eskaera izenpetzen duenaren IFZren fotokopia. Sozietatearen ordezkari bat izan behar du.

— Eskaera izenpetzen duen pertsona sozietatearen ordezkari dela frogatzen duen dokumentuaren fotokopia.

d) Enpresa talde eta batasunak.

Aurkeztu beharreko agiriak:

— Taldea edo batasuna eratzeko egindako eskritura publikoaren kopia baimendua edo fotokopia. Haren funtzionamendua gidatzen duten estatutu edo itunak jaso behar ditu eskriturak.

— Dagokion erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiria, hala bada.

— Eskaera izenpetzen duenaren IFZren fotokopia. Entitatearen ordezkari bat izan behar du.

— Eskaera izenpetzen duen pertsona sozietatearen ordezkari dela frogatzen duen dokumentuaren fotokopia.

e) Jabetza horizontaleko erregimenean dauden etxejabeen komunitateak.

— Akta liburu originala eta fotokopia. Kalearen izena edo zenbakia ez badator bat gaurkoarekin, udalak luzatutako ziurtagiria aurkeztuko da.

— Akta liburua irekitzeko eginbidearen fotokopia.

— Eskatera izenpetzen duenaren IFZren fotokopia. Komunitatearen presidentea edo administratzailea izan behar du.

— Presidentearen edo administratzailearen izendapena jasotzen duen akta edo agiriaren fotokopia, eskatera zeinek sinatzen duen kontuan hartuta.

f) Fundazioak.

— Eraketa eskrituraren kopia baimendua edo fotokopia.

— Erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiria.

— Eskatera izenpetzen duenaren IFZren fotokopia. Bertako patroia nahiz kudeatzaileetako bat izan behar du edo, bestela, ordezkari bat.

— Eskatera izenpetzen duen pertsona patroia, kudeatzaile edo ordezkari dela frogatzen duen dokumentuaren fotokopia.

— Fundazio publikoak direnean, Aldizkari Ofizialean sorrerari buruz argitaratutako arauaren fotokopia, hala badagokio.

Hiru. Aurreko Bat eta Bi apartatueta xedatutakoa xedatuta ere, identifikazio fiskaleko zenbakia emateko beharrezkoa dela iritziz gero, Zerga Administrazioak beste edozein dokumentazio eska dezake eskatera aurkezten duen pertsona edo entitatearen xedea, zerga helbidea edo izaera juridikoa behar bezala kalifikatu eta zehaztearren.

10. artikulua. *Alta, aldaketa edo bajaren zentsu aitortuari erantsi beharreko agiriak.*

Bat. Alta aitortua.

a) Altaren zentsu aitortuean identifikazio fiskaleko zenbakia emateko eskatzen bada, 036 ereduari aurreko artikuluko bi apartatua adierazitako agiriak erantsiko zaizkio eta, bidezkoa bada, baita Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta hartu izanaren frogagiria ere.

b) Altaren zentsu aitortua aurkezten den gainerako kasuetan, 036 ereduari honako agiriok erantsiko zaizkio:

— Nortasun agiriaren fotokopia edo atzeritarren identifikazio zenbakia jasotzen duen agiriaren fotokopia edo, hala badagokio, zergapekoaren identifikazio fiskaleko txartela edota behin-behineko frogagiria.

— Entitateak edo pertsona juridikoak direnean, gainera, eraketa eskritura publikoa edo agiri pribatua aurkeztuko da, non eta agiri horiek lehendik aurkeztu ez diren identifikazio fiskaleko zenbakia eskatzeko.

— Ordezkaritzaren frogagiria.

— Era berean, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta hartu izanaren frogagiria ere aurkeztuko, bidezkoa bada.

Bi. Aldaketa aitortpena.

Aldaketaren zentsu aitortpena aurkezten bada, gertatu diren aldaketen frogagiriak erantsi beharko zaizkio 036 ereduari.

Hiru. Baja aitortpena.

Bajaren zentsu aitortpena aurkezten bada, jarduera guztiei Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan baja eman zaiela frogatzen duen ziurtagiria erantsi behar zaio 036 ereduari, non eta, betebeharrak formalen erregelamenduak 20. artikuluan 4. paragrafoan ezarritakoagatik, jardueren baja hori aurkeztea ez den beharrezkoa.

Baja hartzearen arrazoia entitateek bat egitea, erabat zatitzea edo aktibo eta pasibo osoa lagatzea denean, bajaren zentsu aitortpenarekin batera honako hau aurkeztuko da:

Eskritura edo horren frogagiria.

Memoria labur bat, egindako merkataritza eragiketaren izena eta azalpena jasoko dituen eta esku hartu duten entitate guztiak identifikatuko dituen (IFZ eta izena edo sozietate izena).

Lau. Aurreko Bat, Bi eta Hiru apartatuetan xedatutakoa xedatuta ere, beharrezkoa dela iritziz gero, Zerga Administrazioak beste edozein dokumentazio eska dezake eskaera aurkezten duen pertsona edo entitatearen xedea, zerga helbidea edo izaera juridikoa behar bezala kalifikatu eta zehaztearren.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarririk gabe geratzen dira foru agindu honetan xedatutakoarekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak eta, bereziki, honako hauek:

— 856/2012 Foru Agindua, irailaren 14koa, enpresariak, profesionalek eta beste zergapeko batzuek zerga ondorioetarako aurkeztu behar duten zentsu aitortpenaren 036 eredu berria onartzen duena.

— 1014/2013 Foru Agindua, azaroaren 27koa, enpresariak, profesionalek eta beste zergapeko batzuek zerga ondorioetarako aurkeztu behar duten zentsu aitortpenaren 036 eredu berria onartzen duen irailaren 14ko 856/2012 Foru Aginduko 1. eranskina aldatzen duena.

AMAIERAKO XEDAPENA

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean, eta 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Donostia, 2014ko abenduaren 23a.—Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.
(11784)

I. ERANSKINA



II. ERANSKINA

